

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak askatasuna eta demokrazia defendatzea eskatu du, tresna ezin hobekak direla terrorismoaren aurka borrokatzeko

*Gaur goizean Kataluniako atentatuak gaitzesteko egindako kontzentrazioan buru izan da*

Ostirala, 2017.eko abuztuak 18

Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, "askatasuna eta demokrazia defendatzea" eskatu du gaur, eta tresna ezin hobekak hartu ditu edozein terrorismoren aurka borrokatzeko. Horrez gain, bakerako, bizikidetzarako eta demokrazia eta askatasuna goresteko dei argia ere egin du.

Lehendakariak hauxe adierazi du: "batzuetan, gure gizartea astintzea erraza duen terrorismo baten aurrean gaude". Hori dela eta, "askatasuna, demokrazia eta Europako gizartea harrotasunez defendatzea" eskatu du, "oro har, eskubideak defendatzeko bere eredia sozialki zabaltzen jakin duelako". Barkosek hauxe nabarmendu du Nafarroako herritarren izenean: "solidaritatea eta bat etortzea biktimekin, haien senideekin, Bartzelonako hiriarekin eta Kataluniako herriarekin oro har".

Barkos gaur goizean Kataluniako atentatuak gaitzesteko egindako agerraldi isilean buru izan da. Nafarroako Gobernuak egin du deia, Nafarroako Jauregiaren aurrean egiteko. Harekin batera honako hauek ere izan dira: Hezkuntza kontseilaria eta Gobernuko eledun María Solana; Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanen kontseilari Ana Olló; Kulturako kontseilari Ana Herrera; Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizalde; Ogasun eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburu eta foru Gobernuko



Barkos Lehendakaria agerraldiaren buru izan da Nafarroako Jauregiko fatxadaren aurrean, non banderak haga erdian jarri dituzten.



Herritar batzuek agerraldian ere parte hartu dute.

zuzendari eta zuzendari nagusiak.

Horrez gain, Nafarroako Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez; Arartekoa, Javier Eneriz eta parlamentariak, Nafarroako alderdi nagusietako liderrak, eta ehun herritar ere izan dira. Minutu bateko isiltasuna gorde ondoren txalo egin dute.

Bestalde, dolu-seinale ofizial moduan, banderak haga erdian jarriko dituzte Nafarroako eraikin publikoetan hurrengo igandeko 24:00ak arte (abuztuak 20).